

# SUTEK

## Erreta zeuden, eta piztu egin ziren

Maialen Akizu eta Unai Oñederra



**IZAN TA ESAN**

010 | 2020ko otsaila

**MANU  
ROBLES  
ARANGIZ**  
FUNDAZIOA

# SUTEK

## Erreta zeuden, eta piztu egin ziren

### AURKIBIDEA

---

1. SARRERA .....	3
2. SUTEK-EN KASUA .....	9
3. ARRIKITAUN .....	15
4. ITXIERAREN ONDORENA .....	16

**Izan ta Esan 10**  
2020ko otsaila



**MANU ROBLES-ARANGIZ**  
FUNDAZIOA

[fundazioa@ela.eus](mailto:fundazioa@ela.eus)  
[@mrafundazioa](https://www.mrafundazioa.eus)  
[www.mrafundazioa.eus](http://www.mrafundazioa.eus)

Fotokonposizioa: Edorta  
Inpresioa: Bilbograf

# 1 Sarrera

“Eta enpresa gure egingo bagenu?”. Galdera hori izan da hamaika langilek bere buruari egin diona bizitzeko behar duen soldata jasotzeko arazoak eta zailtasunak sortzen direnean. Eta enpresa berreskuratuez ari garela beti etortzen zaigu gogora Argentina, eta hein txikiago batean Grezia. Bai, han krisi garaian pobrezian ez erortzeko langileek enpresak bere gain hartu behar izan zituzten, eta balentria hau lau haizetara zabaldu da munduan zehar, eredu bilakatuz. Eta hemen, zer?

Bada, hemen ere 80. hamarkadan enpresa asko berreskuratu ziren. Gehienak SAL moduan (Sociedad Anónima Laboral), baina beti enpresen jabetza %100ean langileen esku geldituta. Ez zitzaion izaera juridikoari hainbeste begiratzen. Garaiokoe esan digute noizbait, baten-batzuek enpresa kooperatiba moduan berreskuratu nahi, eta Mondragonetik ezezko borobila jasota, atzera egin zutela (hedatua zegoen kooperatibek aurrera egiteko Mondragonen barruan egon behar zutenaren ustea).

Nola zen posible garai hartan, esaterako, 400 langileko enpresa bat krisian egonda, langile guztiak prest egotea enpresaren jabetza eta ardura euren bizkarrean hartzeko? Gakoa hemen zegoen: garai hartan sei hilabetez lan eginda bi urteko paroa jasotzen zenuen. Horrekin jokatzan zen enpresa aurrera ateratzeko; horrek ematen zuen arnasa. Plantillan 400 pertsona baziren, garai zailetan 200ek egin zezaketen lan eta, bitartean, beste 200ak langabezia-saria kobratzen egon zitezkeen bi urte pasa arte. Epe hori pasata langileek postuak elkar-trukatzen zituzten, lanean egondako 200ak langabezia kobratzen hasten ziren eta gainerakoak lanean hasi. Baldintza horiek malgutasun handia ematen zuten berreskuratutako enpresa langileek aurrera atera zezaten. Enpresaren kapitalizazioarako ere oso baliagarria zen sei hilebeteko lanarekin sortzen zenuen bi urteko paroa (askotan paroarekin kapitalizatzen baitziren, eta dira, enpresak), nahiz eta gehienetan enpresa bera doan edo pezeta baten truke eskuratu langileek.

Liburuxka honetan garai hartako hainbat adibide jaso ditugu koadro batean, oso laburki, orduko kasuak hobeto ezagutzen lagunduko duelakoan. Dena den,

ez dugu historian gelditu nahi. Ez gabiltza hitz egiten urruneko edo aspaldiko kontuez. Gaur egun ere enpresak berreskuratzen dira, eta *Izan Ta Esan* honetan oraintsu hainbat langilek sortu duten SUTEK kooperatibaren istorioa kontatu nahi dizuegu. Sail honetan langileen garaipenen kontakizunak jaso ohi ditugu protagonistei egindakoa eskertzeko, egin dutena historiarako idatzita gelditu dadin eta Euskal Herrian zehar euren antzeko egoeran egon daitezkeen beste hainbatentzat ere du izan daitezen.

Baina azpimarratu nahi dugu SUTEK ez dela ezerezetik sortu den txanpinoi isolatu bat; ez da sortu berri den kooperatiba bakarra; ez da langileek kooperatiba edo SAL moduan berreskuratu duten enpresa bakarra. 2008an abiatzen den krisiarekin Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sarea indartu egin da proiektu eta aliantza berrieekin, eta aspalditik egiten ari ziren lan onaren oihartzuna zabaltzen ari da. Ekonomia Sozial Eraldatzailea ere egituratzen hasi da: kooperatiba desberdinak sortu dira Mondragoneko logikatik kanpo eta Olatukoop sarean ari dira saretzen. Langileek ere, epe honetan, enpresa asko berreskuratu dituzte SAL moduan (dozenatik gora zenbatu ditugu).

“Enpresa berreskuratzeak ez ziren 80. hamarkadan amaitu. Jarria etengabea izan da. Beti dago enpresa nori utzi ez eta jubilatzen den jaberaren bat, edo jabearen kudeaketa kaskarragatik krisian sartzen den enpresaren bat, aurreikuspenik eta inbertsiorik gabe zaharkituta gelditu den produkzioa, deslokalizazioaren bat... Dena dela, egia da, bereziki, krisi garaietan handitzen direla enpresa berreskuratuen kopuruak”. Joseba Agirrerren hitzak dira, ELAko Negoziazio Kolektiboko bulegoko kidea. Urteak daramatza enpresa berreskurapenen mundu honetan lanean. “Esaterako, 92-94ko krisian, nire eskualdean (Ibaizabal-Nerbioi) 2,5 enpresa ixten ziren hilero. Ikaragarria zen odolustea. Garaiko enpresa berreskuratze gehienak SAL moduan egiten ziren, denak %100 langileen esku geldituz, baina izan ziren tartean kooperatibak ere”. Izaera juridiko bat edo beste aukeratzeko orduan erabiltzen zuten irizpidearengatik galdetuta “langileen nahien arabera izaten zen, langileek zuten ezagutza edo ideologiaren arabera. Batzuek hasieratik kooperatiba bihurtzea erabakitzen zuten. Oroitzen dut pasteleria industrial baten kasua. Hainbatek Mondragonen sartu nahi izaten zuen, baina Mondragonek soilik komeni zitzaizkionak onartzen zituen, bere kooperatibei konpetentziarik egingo ez ziotenak hain zuzen. Gehienetan baztertuak ziren eta beren kabuz egiten zuten aurrera kooperatiba edo SAL bezala. Guk ere izaera juridikoari ez genion garrantzia handirik ematen. Helburua, beti, aktibitatearekin aurrerajarritzea zen.”

Bai, enpresen berreskurapenen hariak ez du etenik, baina egia da denborarekin zailtasunak handitzen joan direla. Kapitalak beti borrokatu du enpresen jabetzak ez daitezen langileen eskuetara pasa, baina indar-harremanak daude atzean. 90. hamarkadan olde neoliberalak iristen da Euskal Herrira, kapitala indartsu dago, eta geroz eta eragozpen gehiago jarri ditu langileek enpresen jabetzak eskuratzeko. Josebak lau aipatu dizkigu:

- a) 1992an Carlos Solchaga ekonomia ministro sozialistak hartutako neurriak: sei hilabete lan eginda bi urtetarako langabezia jasotzetik, bi urteko langabezia saria jasotzeko sei urte lan egin behar izatera pasatzen da. Aldaketa horrekin, langileek enpresa kapitalizatzekeo baliabideak nekez lortzen zituzten, eta beraz, zailagoa zen enpresak langileek eskuratzea.
 

“Dena den aurkitu genuen zirrikitua. Finantzaketarako langileek zituzten zailtasunak konpontzeko eurek zituzten beste eskubide batzuk erabili genituen. FOGASA (Fondo de Garantía Salarial) izan zen gure tresna nagusia”. FOGASAREN ordainketen agiriak finantza entitate batean mailegua eskatzeko balio zuen.
- b) 1997ko SAL legeak enpresan langileena ez den kapitalaren sarrerari atea irekitzen dizkio. Langileen jabetzak %51 izan behar zuen, baina gainerakoan, kapital pribatua sar zitekeen. Gerora lege horren joera okertzen joan da, langileen jabetzaren ehunekoa apaltzea ekarriz: bazkide izateko aukera luzatzen zaie bertan lan egiten ez dabiltzanei, eta soldatapeko langileak kontratatzekeo aukera zabaltzen da.
- c) 2000 inguruan José María Aznar, garaiko Espainiar estatuko presidentea, Gizarte Segurantzarekin zorrak zituzten enpresen zerranda beltza egiten hasi zen. Ordura arte enpresa berreskuratuek ez zituzten aurreko jabeen Gizarte Segurantzako zorrak ordaintzen, langileek enpresa berreskuratzen zutenean zor hori desagertu egiten zen. Lantoki berean, langile berdinek, jarduera bera egitea “enpresaren jarraipena” zela argudiatuz, zor horiek langileei ordaintzea zegozkiela argudiatu zen.
- d) 2008an Konkurtso Legearen Erreforma egiten da. Lege berriarekin langileen kapitalizazioak zailtzen dituzte, FOGASAKO dirua jasotzeko traba gehiago jartzen dira, ordainketak atzeratzen dira...

Hori bai, ohar bat egin nahi izan du Josebak, 80. hamarkadan jabeak langileei enpresa “pezeta baten truk” ematen zienaren inguruan: Nagusi hark, poligonoaren salmentarekin nahikoa diru jaso zuen, eta pezeta baten truk langileei eman zietela esan arren, aurretik zenbat soldata zor zizkien, jakizu! Orduan ere, gaurko berdinak irabazten, eta biharko antzekoak galtzen”. Ohar garrantzitsua da, bestela, “txas!”, dirutza handia desagertuko bailitzateke aurreko jabearen poltsikoan. Dena den, zailtasunak zailtasun, eta kapitalak enpresak berreskuratzeko jartzen dituen traba gero eta ugariagoak gora behera, 2008tik sufritzen dugun azken krisi honetan ere, enpresa mordoxka bat berreskuratu ditugula kontatu digu Josebak: 18ko zerrenda bat eman digu.

Enpresa berreskuratuetatik aurrera zenbat ateratzen diren galdetzean, harritu egin gaitu datuak: %80 inguru. “Jakina, asko saiatu arren badira kasuak ere ez direnak berreskuratzen, baina aurrera ateratzen diren gehienek irauten dute.” Enpresen tamainaren inguruan ere jaso nahi izan dugu informazioa. “Normalean 60 langile inguruko enpresez ari gara hitz egiten, baina badira handiagoak ere; handienak 400 inguru zituen eta bada besteren bat ehunetik gorakoa ere.”

Amaitzeko emaitza hain onaren sekretua zein den jakin nahi izan dugu. Abiatzen diren hamar proiektuetatik zortzik irautea, krisitik abiatuta gainera, izugarritzko arrakasta baita. Argia izan da erantzuna: entusiasmoa. “Langileen suharra da gakoa, entusiasmoa! Krisiarekin denok ikusten dugu geure burua eta bizitza kolokan, eta honelako prozesuetan, langileek enpresari buelta ematea lortu dutenetan, jardueraren adinako buelta izaten da euren buruetan: beraiek egin dute, beraiek borrokatu dute, pultsua eutsi eta gora! Bakoitzak daki zenbat ordu, diru, neke, haserrealdi pasa dituen, baina begira, beraiek nahi zuten emaitza, hortxe. Grinatik egiteak balio du”.

Halaxe aurkitu ditugu SUTEKeko langileak haiekin elkartu garenean: grinatsu.

## EGURRAREN SEKTOREAN 80. HAMARKADAN BERRESKURATU ZIREN LAU ADIBIDE

### **La Aeronautica (Bilbo, Zorrotzaurre)**

Enpresa hau Baldes familiarena zen. Familiak, Ginean jabetzak zituen, itsasontziak eta basoak batik bat, eta basoetako egurra erabiltzen zuten Zorrotzaurreko zerrategian. Ondasun guztiak galdu zituzten Gineak independentzia lortzean, eta *La Aeronautika* langileei ematea erabaki zuten. Bai, ehuneko ehun muxu-truk ematea 1978an. 400 langile zituen enpresak, ordurako asko zen, eta euren arteko harremanengatik itxi zen bost urteren ostean. Urte horietan zehat plantillan 400 langile eta berrehun aritzen ziren lanean, txandakako ERE batekin. Joseba Agirrek, baina, brausta bota du: "A48007132: hori da, ELAK berreskuratutako lehen enpresaren IFZ-a".

### **Toña y Leguineche (Gernika)**

Toña y Leguineche ere zerrategia zen, baina bertako egurra erabiltzen zuen, pinua gehien bat. 80ko hamarkada zen eta nagusiak pezeta baten truk eman zien enpresa langileei. Gernikako Poligonoan zegoen kokatua enpresa, eta udalak eremu hura behar zuenez, saldu eta Muxikara eraman zuten guztia. Joseba Agirrek horregatik egin du ñabardura. "Nagusi hark, poligonoaren salmentarekin nahikoa diru jaso zuen, eta pezeta

baten truk langileei eman zietela esan arren, aurretik zenbat soldata zor zizkien, jakizu! Orduan ere, gaurko berdinak irabazten, eta biharko antzekoak galtzen".

Gaur egun, martxan jarraitzen du *Toña y Leguineche SAL*-en ondorengoa den Ebaki enpresak. Muxikan, ehun langilek egiten dute lan.

### **Mueble de la Serna (Balmaseda)**

80ko hamarkadan, Balmasedan altzaringintzan zebiltzan langileak bi milatik gora ziren. Egun berrehun inguru daude, lantegi asko altzariaren krisiarekin itxi egin behar izan baitziren. Italiatik hasi zen altzaria etortzen, askoz ere prezio-kalitate baxuagoan eta Balmasedako produkzioak ezin izan zuen egokitu.

Mehatxu hortaz konturatu ziren Muebles de la Sernakoak ere, eta euren lana galtzeko prest ez zeudela erabakita, antolatu eta nagusiari aurre egin zioten. Nagusiak beste enpresa bat zuen, San Asension, eta izan zen langileak bertara mugituko ote zituzten usterik, baina Balmasedan geratu nahi zuten eta hala sortu zuten S.A.L-a. Bi lan-lerro zituen orduan, eta langileek enpresa euren egitean hirugarren bat erosi zuten. Egun, itxita dago enpresa baina hamar urtean iraun zuen SAL bezala.

### **Astilleros Udondo (Erandio)**

Egurrarekin egiten zuten lan Astilleros Udondo-koek. Egurrezko txalupa eta yate txikiak egiten zituzten, baina beirazko zuntza iritsi zen Estatura eta bertako produkzioak gain behera handia izan zuen. Erandioko enpresak

kooperatiba bihurtu nahi izan zuen hasiera batean, baina Mondragon Kooperatiba Taldeak baldintza zehatz bezain ugariak eskatzen zizkien, eta denak bete ezinda, ezin izan zuten kooperatiba bihurtu. Horregatik, SAL-a izan zen euren aukera bakarra.





## 2 Sutek-en kasua

“Uztailaren 5ean orduan. Ze ordutan?” “10:30etan ondo?” “Ondo! To, whatsappetik bidali dizut gure kokalekua”. Astigarragako pabiloirako bidea marrazten zuen GPSak. Bertan dago Sutek kooperatiba: langileek euren egin duten kooperatiba. Bestelako mantenu lanak egin arren, egun, su instalakuntza eta hauen berrikuspenaz arduratzen dira. Kafe bero bat lehenengo.

Astigarragako pabiloiko tabernan, Azpeitiko uso-tiraketako lehiaketaren kartela ageri da, eta ogitarteko erdiari “pintxo” deitzen diote: Almetac SA, Suministros Electricos GabyI, Cafes Aitona SL. Ez dut Suteken kartelik ikusten eta goizeko lehen tragoarekin eskelak irakurtzen ari zen gizonari galdetu diot. Ez du Suteken berririk. Eskeletan ez da azaldu behintzat. “leeeuu! Maialen? Hemen, hemen!”.

Bi muxu ematerako esan dit bere izena. “Ni naiz Xuriñe”. Bera izan da telefonoko nire kontaktua, baita sindikatura jo zuena ere. Listurik ez, baina marka uzten duten muxu pareak eman dit. Soinuarekin, mmmua mmmua. Tatuaje bat dauka sorbaldan, zurrunbilo itxurako sugar beltzaren forma duena, eta ezkerrean darama. Ezer esaterako, indarra duela sumatu diot Xuriñeri, eta nik ia indarririk egin gabe sartu nau lokal barrura. “Zure etxean zaude, pasa pasa”.

Berri usaina dauka lokalak. Sarreran dago bulegoa: bi mahai, aulki modernoak, landare berderen bat eta kanpoko kristalak kolore zuriarekin dakarren argitasuna. Lokala bitan dago banatuta, eta bulegoa eta tailerra ate batek bereizten ditu. Begizko kalkuluz, 15x20 metro jo dizkiot gutxi gora behera. Estreinatu berri den lokal baten eta goitik behera erabat jarritakoaren arteko muga horretan dago Sutek, trasteak han-hemenka, apalak txukun-beteta, nerabezaro garaian. Bertan daude Alain, Ivan eta Iñaki, hobiren bat jarri nahian-edo. Lana utzi dute, bi muxu eman eta bulego argitsuko mahai baten bueltan eseri gara elkarren berri jakiteko.

Kontatu diet nondik natorren, eta nola, Manu Robles Arangiz Fundazioaren “Izan eta Esan” sekziorako aproposa iruditu zaigula euren esperientzia. “Izan eta Esan”-en lan munduko kontakizunak biltzen dira, garaipenak batik bat, hurrengo

borroken eredu izan daitezzen. Eta horietako bat da Sutek. “Ue, ue, uee!”. Txalo egin diote euren buruari. Lankide artean edo lagun artean non nengoen ezin berezita aritu naiz elkarrizketa guztian, baina taldeaz haraindi, lau pertsona daude parez-pare: nondik dator bakoitza? “Nondik natorren ni? Hobe jakingo banu!”. Xuriñe hasi da hizketan.

“Ni LTM Donostian hasi nintzen lanen 2010. urtean”. LTM-ko langileak izan dira Sutek kooperatiba sortu dutenak. LTM nagusi berdinarekin hiru enpresetako bat zen. Beste biak, MundoLux Argikuntza SI. eta UNICOMP REACTIVA S.L. ziren. UNICOMP izen zen lehena ixten, eta gestio txarra medio, MundoLux-ek ere bukaera berdina izan zuen. LTM zen lan-kargaz ondo zebilen bakarra, baina dominioak dominoaren antza du: bat erori bezala, segidan besteak. “Salmentez arduratzen nintzen, eta egiari zor, nire lana asko gustatzen zitzaidan. Saltzea eta saltzea gustatzen zait niri gehien, eta lan denetan bezala, hasiera batean kokatzen ari nintzela iruditzen zitzaidan, eta ez nuela zertan gertatzen zen guztia jakin beharrik. LTMn baina, oso gauza arraroak pasatzen ziren, oso arraroak”. Gauza arraroak ohiko bihurtu ditu egungo sistemak. Horregatik, langile talde honek ohiko ez den moduetara jokatu zuen, langileek euren lanaren ardura eta boterea izatea oso normala ez delako.

“Ni iturgina naiz”. Alaineke jarraitu du. Lehen begiratuan, isil xamarra zirudien, begi argiak, lauzpabost eguneko bizarra, hogeita hamar urteren bueltakoa. Berriketaldian nabaritzen zaio badakiela zertan eta zertaz ari den. “Nik LTMn 2 urte neramatzan, eta ikusten nuen enpresa, nahiz eta gestioa nagusi batek eraman, finean, langileen esku zegoela. Horretxegatik, *ekipo* berdinarekin, gure alde lan egitea tokatzen zitzaigula iruditzen zitzaidan”. Alaineke jarraituko zukeen baina Ivanek hartu dio erreleboa. “Ea, ea, dena zuk esan aurretik besteoi ere utzi hitz egiten! Nik ere kontatu nahi dut nire istorioa”. Ivan taldeko gatza eta piperra da. Altuera medio, *Txikitin* deitzen diote tarteka, baina umore handia du luze-zabalean. “Ni suteen prebentzioaz arduratzen zen enpresa batean nengoen, eta urte mordoxka nerematzan bertan. Nazka-nazka eginda nengoen. LTM-ra aldatzeko aukera izan nuen, Alainekekin amastadea neukan eta ordukoa baino hobea izango zelakoan, cambio! Urte eta erdira konturatu nintzen ezetz, LTM ere enbor berdinekoa zela”. Enborra, logika neobilerala da: egurra eta egurra langileari. Eta bai, sua da egurraren etsairik handiena. Ivanek jarraitu du. “Orain, mahaiaren bueltan eseri, lankideei begiratu eta iruditzen zait, hauxe izan dela hasieratik egin nahi izan dudana: geure lana erabiltzen zuen enpresa, geure egin dugu”. Ivanek aspalditik omen zuen buruan *horrelako* zerbait egitea. “Urteak

neramatzan bueltaka, eta banekien beste zerbait egin behar nuela, beste zerbait sortu, edozer zen hobea bizi izan ditudan enpresak baino. Eta begira, hemen gaude”.

Laugarrena hitz egiten lñaki da. Elkarrizketako denbora tarte osoan zotza ibili du ezpain artean, eta hoge minutu pasa orduko, aulkitik altxatzen zen, hara hona, zutitu eta eseri. Ez zaio geldi egotea gustatzen. “Ni beste lantegi batean egon nintzen 2014. urtera arte. Berokuntza-sistema, gasa, iturgintza... halakoetan ibiltzen ginen. Enplegua Erregulatzeko Espedientea (EEE ere izendatzen dena, *Espediente de Regulación de Empleo*, ERE) genuen. Zortzi-bederatzi urte pasatu genituen jira-biran, krisiak eta ixtoriak, eta azkenik, banatu egin ginen. Lan bila nenbilen eta LTMek kontratau ninduen. Urte bete pasa nuen bertan, baina lanik ez zegoela-eta, ba handik ere, kalera”. lñaki iturgintzan ibili da baina mantenuaz arduratzen da orain. *Polibaliantea* dela diote. “Ez neukan lan finkorik, eta iaz, 2018an, Xuriñe nitaz gogoratu eta deitu egin zidan. LTMen obra potentete xamarra onartu ziren, eta enpresa lan-kargaz handituta zegoen. Nitaz gogoratzeak ilusioa egin zidan, eta bi aldiz pentsatu gabe eman nion baiezkua. Baina gero, horixe, pasa dena pasa da. Denbora gutxian joan da pikutara dena”. Esaldi bakarrean sartu ditu ilusioa eta “pikutara” hitza. Enpresen gora-beherak, irregulartasunak, sistemaren anomaliatzat ditugu, baina behin eta berriz modu ziklikoan gertatzen dira, ezegonkortasuna egonkortua dagoen egitura honetan.

“Siempre estamos en continua evolución”. Hala dio LTM-ko leloak. “Evolución no, involución”. Bota du Xuriñek. LTM nagusi berdinaren hiru enpresetako bat zen. Hiru enpresen artean diru-kutxa bakarra zegoen, eta honela, enpresa baten galerak, diru-sarrerak zein irteerak, bestearenarekin orekatzen zituen jabeak etengabeko malabarismoak eginez. LTM zen, ordea, kaudimena zuen lantegi bakarra. Hiru langile izatetik hamabi langile izatera pasa ziren zortzi-bederatzi urtetan. “Bai, LTM enpresa merkatuan zegoen, hazi egin zen denbora tarte batean eta hori, lana ondo egiten genuenaren seinale zen” dio Alaineck. Gainbehera baina, nagusiaren kudeaketa txarreatatik, eta arduragabekeriagatik etorri zela garbi dute langileek. “Nagusiak zuen aurreikuspen faltaren adibideak asko eman ditzakegu: *elebadore* bat kontuan hartzen ez zuelako, eskailera batekin aritu gara lanean, horrek zekarren denbora plusarekin eta gainera arriskuan, kalitate baxuan... gaizki. Hori kasu bat da, baina asko egon dira tartean”. Xuriñek alderdi administratiboko akatsez daki gehiago. “Gure nagusiak, obrak firmatzen zituen baino oso buru-arin... Adibidez, orain gutxi San Mames

kiroldegia egin dugu, 80.000 €ko esleipena genuen, eta obra hasi aurretik galerak genituen. Hasi aurretik! Zergatik? Ba ezer egin aurretik, bankura jotzen zuelako ordaindu ezin genezaken kreditu bat eskatzera.". Balantzeak ez zituen ondo egiten nagusiak, eta balizkorik ez zuen aurreikusten. "Nik urte eta erdian behin ikusi nuen, elkarrizketa egin zidan egunean justu". LTMk Pasaian zuen egoitza, eta bertan izan zuen Alainek lehen kontaktua enpresarekin. Pasaiaiko enpresa egun itxita eta hutsik dago, eta bai, Sutek bertan kokatzea pentsatu zuten hasiera batean, hango materialak berreskuratzeko besteak beste, baina ez zuten egin. "Ez genuen behar han zegoen guztia. Tramite judizialak, epealdiak... asko itxaron behar zen ekiten hasteko, eta gainera, iragana ahaztu nahi genuen". Alainek aukera hori baztertu aurretik kalkuluak eginda zituela esan digu.

Nagusia, 2018ko abenduan hasi zen enpresaren itxiera planifikatzen. SABICO enpresarekin hartu-emanak hasi zituen, nolabait, diru-kutzak elkar-trukatzen. "Nik abendutik aurrera alarma piztuta neukan, eta banekien, ordaintzeko ahalmenik ez genuen erosketa batzuk egiten ari nintzela. Ez zegoen xoxik ordurako!". Xuriñe gauza arraroak sumatzen zituen, eta administrari lanak egiten zituenek, gainerako lankide/lagunek ez zeukaten informazioaren berri zuen. "Nik garbi hitz egiten nuen nagusiarekin, eta esan nion, erosketa horiek ezin zirela egin. Hornitzaileak arrazoiz osoz ari zitzaizkigun marmarka. Baina berak, hala, segi eta segi, eta gero zer eta niri mehatxuka erosketak egiteagatik. Horrela ibili ginen!".

Abendutik aurrerako hilabeteak oso gogorrak gogoratzen dituzte denek. Enpresaren ezintasunen aurrean langileak zerbait pentsatzen ari ote ziren ustez edo susmoz, nagusiak, bazkaltzera joaten zenetan, mugikorra uzten zuen lokalean grabatzen. "Bai, bai, ez dakit zenbatetan egin zuen, baina ni bulegoan grabatzen aritu da. Hori kutrea izatea da, redios. Gure nagusia, hitz batean definituta horixe izan da: ku-tre-a.". Xuriñeri tonua bizkortzen zaio nagusiaz hizketan hasten denean. Grabatua izan zen, mehatxatua, bere posta elektronikoko pertsonalera sartu zitzaion edo zitzaizkion. Nagusia ez baitzen bakarrik egon abentura honetan. Halako egun batean, bere lagun batekin sartu zen enpresan. "Bai, bere adin bueltako batekin etorri zen". Ivani eta Alaini kontatu omen zien, Nagusia laguntzera zetorrela, enpresari buelta bat eman nahi ziotela, eta horixe, "esku bat botatzera". Berak ez omen zuen deus kobratuko. Urtarrilean, langileen aurretik jaso zuen bere txekoa nagusiaren-lagunak, eta geroztik, ez zuten gehiago ikusi. "Enpresetako Chicote horietako bat zen". Langileek ez dakite

azaltzen zer gertatu zen, baina LTM-ri bideragarritasunik aurkitzen ez ziotela-eta, nagusiak eta lagunak hilabete eskasean amore eman zutela iruditzen zaie.

Kapitalismoaren helburuetako bat, langileak langileen aurka jartzea da. “Borroka daitezela gure zapatapean, zapalduak zapalduen artean”. LTM-ko Nagusiaren xedea ere horixe izan zen, baita enpresaren itxieraren zergatia ere. Xuriñe zeukan dianan. Alainez kontatu du, nola Nagusia obra batera azaldu zen garai nahasi haietan, eta enpresaz hizketan hasi zitzaizela. Enpresaren egoera txarra ezkutatu gabe, Xuriñe eta beste baten errua izan zela aipatzen zuen, eta obra hartako langileei, enpresa hura itxi eta bere hurrengo proiekturako gonbitea luzatu zien.

LTMren itxiera geroz eta gertuago zegoen, eta kaleratzen usaina nabaria zen. Horregatik jo zuen Xuriñek ELA sindikatura, horregatik eta amaren aholkuak medio. Ez zekien sindikatuan zer topatuko zuen, noraezoko momentu hartan laguntza bila zebilen, eta Mikel Muñoz izan zen laguntza hori.

## “LAN-KARGA ZUEN ENPRESA IXTERA ZIHOAZEN”

**Mikel Muñoz** - ELA-Donostia (ETEak)



“Ni UNICOM gaizki zihoalako sartu nintzen itxiera prozesuan”. Mikeli kuriosoa egin zitzaion egoera: nagusi beraren hiru enpresen itxiera aurreikusten zen; MundoLux, Unicom React eta LTM baina azken honek lan-karga bazuen. Langileek sindikatura jo zutenean, aukeren berri eman zitzaien: enpresa baten itxiera ordenatuan Hartzekodunen Konkurtsora (Concurso de Acreedores) jotzen da, eta ondoren administrazio konkurtsalaren esku geratzen da kasua. Xuriñek LTM-ren egoera azaldu ostean, bi irtenbide planteatu zituen sindikatuak: S.A.L-a bilakatzea edo kooperatiba bat sortzea. S.A.L-ean, kapital sozialaren gehiengoa langileen jabetzarena da, eta kooperatibaren kasuan berriz, langileena da kapital sozial osoa. Sindikatuaren ikuspegitik, S.A.L-a egokiagoa zen ordezkari-tza sindikala egotea ahalbidetzen zuelako eta beraz, hauteskunde sindikalak egitea. LTM-ko langileek ordea, garbi zuten: kooperatiba bat izatea nahi zuten.

Sindikatuak FOGASArekin lagundu zien langileei, eta inguruko zenbaite ere lagundu zien. “Ivan-en lehengusuak adibidez, bideragarritasun-plana egiten lagundu zigun, eta oinarri garrantzitsua izan zen hori baliabideak alde izateko”. Halaxe azaldu ziguten Sutekeko kideek. Langabeziaren kapitalizazio ere egin zuten, eta industriako paperak lortzea da eskuartean duten hurrengo erronka burokratikoa. “Hortarako ingeniari bat kontratatu dugu” esan du Xuriñek “lizentziatu berria da, eta Mondragon kooperatibarekin harremanetan jarriz lortu dugu gure proiektuan inplikatzeari”. Hemendik gutxira, bost izango dira beraz, baina ekipoa, ez dute gehiago handitzeko asmorik, oraingoan. “Ez, ez, orain nahiago dugu talde txikian hasi eta pixkanaka forma ematen joan”.

Mikelekin harreman gutxi izan zuten ondoren, baina hasierako arreta eta babesa eskertu zuten sindikatuan, baita kooperatiba bihurtu ostean, *Izan Ta Esan* honetarako kontuan hartzea ere.

## 3 Arrikitaun

Zein da egoera aldatzeko azken tanta? Iraultzek ba al dute egunik? Ba al dago Neguko Jauregirik urritik kanpo? *Sutektarren* jauregia, inoiz izatekotan, “*Arrikitaun*” taberna da. 2018ko azaroan atzeratu zitzaizen lehenengoz nomina. Abenduan, epe barruan sartuko ote ziren zalantza zuten. “Kontatuko banizue nola ibili ginen abendukoa kobratzeko...” Xuriñek hasperen bat egin du. “Urte berri, asmo berri” esaera zaharra errealitate bihurtu zen 2019a heltzearekin batera. Txikitinek askotan komentatzen omen zuen, baina ordu hartan beste tonu batean ari zen. “Nik esaten nien, enpresa bat sortu behar genuela. Beno, bene-benetan nahi nuena jatetxe bat martxan jartzea zen: ni sukaldari, Iñaki guarda, Xuriñe kamarera, Alain pintxe...”. Barre egin dugu. Arrikitaunen forma gabeko amets hura, zer/nola egin zezaketen hasi ziren hitz egiten. Hartzekodunen Konkurtsoan zeudenez, printzipioz, ez zieten ezer aipatu Nagusiari. Giroa gaiztotua zegoen, eta ez zuten nahi gehiago ozpintzerik. Gainera, LTM-ko materialak berreskuratzeko akordio bat lortzea mahai gainean zegoen. Denok dugu bihotz bat eta Nagusiak euren burutazioa hain gaizki hartuko ez zuelakoan, proiektuaren berri eman zion Xuriñek, “ufff, okerrago izan zen. Laneko bileretara ez ginen deituak izan ordutik”.

Taldeak eta proiektu berri batek indarra ekarri arren, aldaketak kostu pertsonala dakarte. “Errealitate desberdinak ditu bakoitzak eta prozesu hau desberdin eraman dugu. Ni, pertsonalki, bakarrik sentitu naiz baina ez laguntza falta nuelako, ezpazen, biharraren berri ez izateak sortzen dizun frustrazioagatik”. Iñakik ez du etxekoen laguntzarik izan. “Baina, buah, oraintxe oso gogotsu nago, eta uste dut funtzionatzen ari garela”. Gainerakoek etxekoen babesa azpimarratu dute. Ivan da lauretan gazteena, eta aitaren aipamena behin eta berriz egiten du. “Luis Azurmendi, idatzi, idatzi hor”. Alainez ingurukoan anparoa izan arren, “erotuta zaude” askotan entzun behar izan duela dio, baina gauza askorekin gertatzen omen zaio hori. Eskerrak munduan eroak badiren.

## 4 Itxieraren ondorena

Hamabi langile aritu ziren LTM-en lanean, eta lau bakarrik daude mahaiaren bueltan. Zer gertatu da besteekin? Xuriñek ez dauka herrarik. “Ba lankide ziren bik, beste lan bat bilatuko zutela esan zuten, ez zuela gure prozesu honetan parte hartuko. Baino oso ondo konpontzen gara beraiekin, lagunak gara eta badakigu hemen langilek ez dutela errurik”. Lankide ohietatik beste hiru Nagusiarekin ari dira lanean SABICO enpresan. Bakoitzak bere hautua egiten duela eta errespetagarria dela garbi dute Sutekekoek. Gainera, ez diete inbidiarik: badakite, euren proiektuan, euren traba eta zailtasunak egonagatik, hobeto daudela. “Nik nahiago dut mila aldiz hemen aritu” esan du Alaine. “SABICO, gainera, oligopolio bat da. Madrilgo enpresa bat, elkarte desberdinez osatua, enpresa txikien aurkako araudia sortzen duena”, Xuriñek ez du horren parte izan nahi. SABICO n sartzeko, langileei LTMko soldata %30 jaitsi die, eta nagusia da galerarik ez duena, nagusia da langileen aberastasuna bere egiten duena. “Nagusiak niri esan zidan, 1.200 € irabazten lanak izango genituela guk, eta berak... berak ez dakit zenbat kobratuko duen, berdin dit, 200 edo 2.000 izan, diru hori gurea da, langileona”. Alaineek esperientzia nahikoa du, nagusiak langilearen izerditik edaten dutela esateko. “Arazoak zeudenean, orduan bai, orduan langileak ziren erantzuleak baina irabaziak baldin badaude, orduan ez, orduan ez dago langilerik. Ekonomia beti da eurentzat”.

Eurak eta gu. LTM eta Sutek. Hornitzailez hornitzaile, banan-banan joan dira orain Sutek izena dutela esanez, kasua azalduz eta euren zerbitzua eskainiz. Hornitzaile bakarrak ere ez die ezetzik esan, are, bezero gehiago ere lortu dituzte. Alaine dio inork ez zekiela zer zen LTM, bezeroak langilieriarekin, eurekin, harreman zuzena zutela eta horrek asko erraztu diela ondorengo kontaktua. Orain gainera, baldintzak kontrastatu eta adosteko ahalmena daukate. “Gure lanari, prezioa eta balorea jartzen diogu”. Ez daude prest 200 €an zortzi orduz, kabina baten barruan lanean aritzeko. “Beno, dena ere ez da horren erraza izan e! Orain indartsu gaude eta hortik ari gara hitz egiten” esan du Xuriñek. “Nola ez dela erraza izan? Hau dena egin dugu-eta!”. Ivane, astelehenik gabeko asteak ditu.



Orain kooperatiba bat dira. Pertsona bakoitzak boto bat dauka. “Kooperatiba bat ez da egitura bat bakarrik, pentsatzeko era bat da” dio Xuriñek. Laurak joaten dira bilerarik gehienetara, gardentasuna eta gertutasuna baloretzat dituztelako, eta bilerak, tartean behin behintzat, Xuriñeren etxean egiten dituzte patata tortilla bat janez. “Egia, hurrengo niri egitea tokatzen zait”.

Langile bezala ezagutuak, lagun bihurtuak, eta lagun-langile bezala taldea eginak. Ez da erraza harremantzea harremanek forma aldatzen dutenean. Xuriñek administrazio lanak egiten zituen LTM-n, eta beste hirurak berriz, teknikari bezala, esku-lanetan ibili dira betitik. “Hasieran grazioso zen, hiru hauek ez zituzten ordenagailuak maneiatzen! Excel bat ikusi, eta bueno, erotu! Baina pixkanaka elkarrekin ikasten ari gara, nik hau erakutsi, besteak hura, hori aldatu... eta orain denok egiten dugu dena”.

Egungo sistemaren ezaugarrietako bat balorearen kontzeptua prezioaren kontzeptura mugatzea da. “Ez dugu nahi harremanen lehen baldintza beti prezioa izatea. Langileak eta baliabideak ikusten ditugu zenbakien aurretik, eta zentzu bat emateaz zait, gure lana justua izatea nahi dugu, bai gure lana zehazki, bai besteek guretzat egiten dutena ere”. Alainek kontatu duenez, S.A.L bat egitea ez zuten nahi, jabetza langileena soilik izatea hobesten zutelako, eta aukera bazelako. Olatukoop-ekoekin harremanetan ere jarri dira. Ekonomia sozial eta eraldatzailea helburu duten komunitateko esperientziak jakitea aberasgarri izan zaie eta harreman horri denborak bere forma emango diolakoan daude. Garbi daukate baina, gizartea eraldatu behar dela, pertsonen bizi-baldintzak egiazki hobetu nahi badira eta itxuraldatzen doan proiektu bat izan arren, garbi daukate zer ez diren izango: “ez gara munstro bat”.

Ez, ez dira munstro bat. Alderantziz, sistema den munstrotzar honi aurre egitea erabaki dute. Aurten, lehen urteak suposatzen dituen inbertsioak medio, ez omen da erraza izango irabaziak izatea. Baina konfiantza dute euren buru eta bihotzean. “Ez gara proiektu bat bakarrik... topera goaz!”. Ez dira proiektu bat bakarrik, pertsonak daude irabazi ekonomikoaren gainetik. “Gure helburua ez da hazi eta hazi joatea. Gure soldata ateratzea nahi dugu, ez dugu inor jaterik nahi, ez yate eta txaletik”. Garbi daukate ordea, lan asko daukatela egiteko, eta horretarako prest daude. “Jende asko euren sofán eserita ikusi dugu, edo edozein baldintzatan lanean, beti, zerbait hobea etorriko den esperantzan. Baina garbi dago: mugitu ezean, ez da ezer lortzen. Zortea ez da “edukitzen”, zortea bilatu egin behar da”.

Harritu eta hunkitu egiten nau euren ausardiak eta zailtasunei begiratzeko dieten moduak. Daukaguna nahi genukeenik urruti egon arren, esku artean dugun gauza bakarra bada, ez gara alboratzeko gai izaten askotan. Berriketaldi osoan, ez da beldurraren aipamenik egin. Neronek galdetu diet. "Beldurrik ez, ez neukan beldurrik. Zertarako? Errespetua bai, noski, eta burura etortzen zaizu: ostra, eta ez bada ondo ateratzen hau, zer? Baino pentsamendu negatibok ez dute ezertarako balio".



## SUTEK, lan burujabea eraikitzea helburu duen kooperatiba

**Beñat Irasuegi Ibarra** · Talaios Kooperatiba - Olatukoop

«Kooperatiba bat ez da egitura bat bakarrik, pentsatzeko era bat da», eta horrela azaltzen du Xuriñe kooperatibistak, modu soil eta zehatzean. Horrela ezagutu genituen guk ere SUTEK kooperatiba eta bertan lan egiten duten kooperatibistak, notarioa eta estatutuekin bueltaka zebiltzan egunetan. Manu Robles-Arangiz Fundazioaren bitartez saretuta, interesgarri ikusi zuten Olatukoop eta Koop57 eta bertan gabiltzanekin harremanak ehuntzen hastea, ekonomia, lana eta kooperatibismoaz ideiak eta praktikak elkarbanatzeko asmoz.

Solasten hasi eta berehala konturatu ginen berdinen arteko solasaldia zela gurea, abiapuntuak eta bizipenak ezberdinak izanda ere, ikuspegi eta jabetze asmo berdinagatik hartu dugu denok kooperatibismoaren bidea, ia denok ezagutza gutxirekin, baina gure lanaren eta bizitzaren erabakietan burujabe izateko asmo berdinarekin.

Bideak elkar gurutzatzen direnean, gure buruari galdetzen diogu zer ote dagoen esperientzien bateratasun honen atzean. Normalean bide honetan bakarrik sentitzen gara, nahiz eta kooperatiba sortzen duen kolektiboaren babesaren sentitu, jendartearen onarpen eza

nabaritzen dugu, SUTEKeko kideek ere nabaritu zuten bezala, nahiko orokorra da. Lanaren, ekonomiaren, finean, bizitzaren inguruko ikuspegi ezberdina dugu oinarri, gure bizi proiektuak modu bizigarrian eraiki nahi ditugu, «gure lana justua izatea nahi dugu, bai gure lana zehazki, bai besteek guretzat egiten dutena ere», «ez dugu nahi harremanen lehen baldintza prezioa izatea». Esaldi soil hauetan dago abiatutako bidearen oinarria; elkartasuna, lankideekiko, beste enpresetako langileekiko, eta jendartearen posible egiten duten guztiekiko. Balioa ez dute preziora murrizten, eta harreman justuetan oinarritzen dute beharrezko oreka. Honek ikuspegia birkokatzen du, eta dena eraldatzeko gaitasuna du: jendartearen, ekonomia, eta bizitza.

Langileoi gure lanaren kudeaketa zuzena egiteko oztopoak jartzen dizkigute ordea. Hezkuntza sistema berak, langile (produktibo) on (obediente) izateko prestatzen gaitu, eta nolabait gure lanaren jabe izateko asmoa pizten bazaigu, asmo hori modu indibidualean, eta etekin ekonomikoa lortzeko izan behar dela argi uzten digu kapitalak eta garapen ekonomikoko eredu neoliberalak. Guk langile burujabeok, badakigu hori ez dela horrela, bidea kolektiboa izan

behar dela susmatzen dugu, baina bideragarritasun plan integral baten beharra dugu, proiektua bizigarria eta lurraldean modu justuan txertatua izateko. Soldatapeko lan harremanak sortzen duen plusbalioaren erabilera metatzailea ikusten dugunean, langileok ekoizpen baliabideen kudeaketa zuzenarekin amesten dugu. Horretarako beharrezkoa da baliabide horiek eskuratzeko formazioa, bidelaguntza eta harremanen sarea. Hori egin ahal izateko baliabideak sortu eta ematea da Olatukoopeko kideon ametsa, Koopfabrika eta Koop57 bezalako tresnekin eta saretuz lortuko duguna.

Euskal Herriko historian momentu batzuetan beste batzuetan baino enpresa gehiago berreskuratu dituzte langileek, baina haria ez da eten, eta esperientzia badago. Kasuak ezagutzen ditugu sindikatuetan eta sare kooperatibetan. Guk Olatukoopen ere badugu Talleres Mitxelena kooperatibaren kasua eredu moduan. Badakigu, gainera, proiektu hauen gauzatze tasa altua dela, nahiz eta kapitalaren eta administrazioaren trabak gero eta handiagoak izan. Askotan proiektu berri eta singularrak egitearekin tematzen gara, baina dagoen lana mantendu eta langileentzat berreskuratzea ildo garrantzitsua izango da. Susmoa dugu berreskuratzeak beharrezko izango diren aro berri bat datorrela, eta oraingoan arrazoiak anitzak izango dira; enpresen kudeaketa txarrak langile taldeak lanaren jabe egiteko erabakiaren aurrean

jarriko ditu; arrakala demografikoak orain arte kudeatzaile izan diren pertsonen erretiroak sortutako hutsuneak sortuko ditu, eta horrekin, enpresa txiki eta handien itxiera, proiektuak bideragarriak izan arren; paradigma sozioekonomikoak, krisi multidimentsionalak, trantsizio produktiboa beharrezko egingo du enpresa askotan, eta kapitala ez da horretarako prest egongo askotan.

Langileak gara jendarte justuago bat eraikitzeko konpromisoa eta ardura hartuko dugunak, nork bestela. Baina horretarako berreskuraketa bide hauek sustatu eta erraztu nahi ditugunon arteko harreman sarea osatu beharko dugu. Sindikatuak, enpresa komunitarioak, finantza erakunde etikoak, tokiko erakunde publikoak, kooperatibak, adituak, arituak, fiskalitatean eskumenak dituzten erakundeak... ahalegin bat egin beharko dugu, lanaren jabetza esku artean hartu eta enpresa berreskuratzea erabakitzen duten langileei Babes Sarea eskaintzeko, elkartasuna esplizitua izan dadin, eta babesarekin batera, prozesuak posible egiteko formazio, bidelaguntza, finantza, aholkularitza eta tresna juridikoak izan ditzagun. Badugu lana, izan dadila elkar zaintzan, bizigarritasunean eta eraldaketan oinarritua.

Zorionak SUTEKeko kooperatibistak, zuen bidea erudia da denontzat Zuena bezalako hamar, ehun, mila SU behar ditugu, oparotasuna denontzat izan dadin.